

CAF-EK SUEDIAKO EUROMAINT ENPRESA EROSI ETA TRENETAKO MANTENTZE LANEN JARDUERAREKIN LOTUTA EGINDAKO APUSTUA SENDOTU DU

CAF Taldeak hazteko eta dibertsifikatzeko bere estrategian beste pauso bat eman du trenen mantentze-lanetako segmentuan Suediako liderra den Euromaint enpresako akzioen % 100 erosteko adostutako akordioaren ostean. Enpresa berri hori gehituta, CAF Taldeak indartu egin du zerbitzuak eskaintzen egiten duen eta gero eta handiagoa den bere jarduera. Gainera, Eskandinaviako herrialdeetako merkatuan duen presentzia sendoa finkatu du (dagoeneko proiektu kopuru handia garatu du han).

Gaur egun, EuroMaint Suediako trenen merkatuan erreferentziazko enpresetako bat da eta honako hauen flotak mantentzeko negozioan Suediako merkatuaren kuota handi bat du: bidaiarientzako trenak, tren-makinak eta tren-ibilgailu industrialak. Bere jarduera nagusiak dira flota handien mantentze-lanak zein sektore horretako Suediako operadore nagusiei tren arloko osagaien gama zabala hornitzea. EuroMaintek herrialde osoan banatuta dauden 18 tailerretan egiten ditu lanak eta alderdi hori bera da merkatuan hazteko aukera eta lidergo-posizio argia ematen dizkiona.

Suediako enpresak 1.000 langile inguru ditu gaur egun eta aurreko ekitaldian 150 milioi euroko sarrerak izan zituen gutxi gorabehera. Gainera, CAF Taldeari eskarien zorro handia ekarriko dio eta zonalde hartako posizionamendu sendoa dela eta, zorroa handitzeko aurreikuspenak daude.

Operazio horrek osagaien hornikuntzarekin eta mantentze-lanekin lotutako jardueran CAFeko Europa mailan duen posizioa sendotuko du. Negozio horren batez besteko gauzatze-denbora handiagoa da eta, horrenbestez, horrek epe ertainera eta luzera begira salmenten egonkortasun handiagoa eskaintzen du. Gainera, Euromainten bezero kopuru handiari esker, Eskandinavian beste era bateko proiektuak garatu ahal izateko aukera berriak sortuko dira. Bestalde, erosketen arloan zein tren arloko ekipoen eta osagaien fabrikazioarekin eta hornikuntzarekin lotuta Taldeak egiten duen jardueran sinergiak lortzeko aukera ere ekarriko du.

Joan den urtean Solaris erosi ostean, CAF Taldeak eman duen beste urrats bat da, eta enpresaren 2020rako Plan Estrategikoan lerrokatuta dago. Beste hainbat helbururen artean, Planak material gurgildunaren eta zerbitzuen negozioan hazkundera izatearen eta jarduera dibertsifikatzearen aldeko apustua egin du. Horren bidez, garraio eta mugigarritasun arloko irtenbideen eta zerbitzuen hornitzaile gisa erreferentziazko talde gisa betetzen duen posizioa sendotu nahi du.

Orlando Nordics AB-ko akzio pribatuen aholkularitzako funtsekin sinatutako akordioan erositako enpresaren balioa 80 milioi euro ingurukoa da, baina amaierako balioa eragiketaren itxieran zehaztuko da dagozkion doiketak egin ostean. Itxiera 2019ko uztaierako dago aurreikusita.



CAF-en Trenbide Zerbitzuak zabalduz

2019ko maiatzak 23

CAF-ek EuroMaint, Suediako trenbide zerbitzuen liderra integratuko du



01/ EUROMAINT



Suediako trenbide mantentze zerbitzuen enpresa liderra, flota eta osagaien mantentze lanaz eta ordezkoen horniduraz arduratzen dena

Deskribapen orokorra

- **Euromaint 2001 en jaio zen**, enpresa publiko baten spin-off bezala (Statens Järnvägar) eta Orlando Nordics AB-ek aholkatutako funtsengatik **erosia izan zen 2016ean**.
- **Suediako merkatu liderra** da trenbide mantentze zerbitzuetan, merkatu kuota nabarmenarekin **bidaiarien floten, merkantzien lokomotoren eta makina horien mantentze zerbitzuetan**.
- Zerbitzu osagarrien zorro osoa eskaintzen du, material mugikorrarentzat. Hau da:
 - **Flotaren mantenimendua:** Proiektu handiak, epe luzeko bezero erlazio eta errepikapen altuko erratioarekin
 - **Osagaiak eta Materialak:** horniketa eta mantenimendu zerbitzuak.
- EuroMaint-ek **18 instalazio eta tailer** erabiltzen ditu, estrategikoki kokatuak Suediako trenbide korridore nagusien inguruan. 1000 langile inguruko taldea du.
- EuroMaint-ek **150 milioi euro inguruko diru sarrera** izan zuen **2018 urtean (SEK 1.550m)**.

Tailerrak



- Tailerrak
- - Trenbide sare nagusienak



01/ EUROMAINT



EuroMaint-ek mantenimendu zerbitzuen gama osoa eskaintzen du, material mugikorraren espektr osoarentzat



	Zerbitzu osoko soluzioa	Material mugikorraren mantenimendua	Osagai berritzea	Material mugikorraren aldaketak	Birmoldaketa	Talde mugikorreko zerbitzuak	Materialaren hornidura	Soluzio digitalak
Bidaiariak (Linea nagusia)	○	●	●	○	○	○	●	○
Bidaiariak (Eskualde mailakoa/ Aldirikoa)	●	●	●	○	○	○	●	○
Merkantzia	○	●	●	○	○	●	●	○
Makina horiak	○	●	●	○	○	●	●	○

Presentzia maila merkatuan



Liderra



Ertaina



Hazten



01/ EUROMAINT



EuroMainten merkatu lidergoak Ipar Europako eskualdean garatzeko aukera emango dio

Merkatu lidergo esanguratsua segmentu ezberdinetan

Epe luzeko ikuspena eskari-zorroan



Merkatu kokapen ezinhobea

02/ TRENBIDE ZERBITZUAK CAF-en



Hedapen globala eta bikaintasuna exekuzioan

50 urtetik gora trenbide zerbitzuetan



- 34 herrialdetan presentzia 97 proiektuekin
- 107 biltegi



- 10.292 kotxe mantenimenduan edo bermean



- 2.532 langile denera



Zerbitzuen gama:

Mantenimendua

Berrikuspen
orokorrak

Modernizazioak
eta
Istripuak

Errepostuak


Zerbitzu
digitalak

Biltegiak
eta
Tailerrak

Aholkularitza
eta
Asistentzia
teknikoa

03/ KOKAPEN ESTRATEGIKOA

EuroMaintek CAF-Taldeko Estrategiarekin guztiz bat egiten du
Taldearen zerbitzu jarduera indartzen baitu



BALIO SORKUNTZA



- Euromaint Taldearen eta bere filialen % 100aren erosketa.
- Euromaint-en enpresaren balioa 80 milioi euro ingurukoa da.
- Itxiera 2019ko uztaierako adostu da.

05/ LEGE OHARRA



Dokumentu hau berariaz informazioa emateko sortu da.

Dokumentuak bukatu gabeko eskuratzeko osatzea operazioari buruz jakinarazten du. Aipatutako operazioa organismo egokiek konpetentzia kontuetan aurreko baimenaren mende jarrita dago. Dokumentu honetan jasotako informazioa ez dute egiaztatu hirugarren independenteek; beraz, ez dago berariaz edo inplizituki inolako bermerik bertan jasotako informazio, iritzi edo adierazpenen inpartzialtasunaren, zehaztasunaren, osotasunaren edo zuzentasunaren inguruan.

Dokumentu honetan, gerora begirako aurreikuspen eta zenbatespenei buruzko adierazpenak jaso daitezke, baina ez dira etorkizuneko errendimenduaren edo emaitzen bermetzat jo behar; izan ere, arriskuak eta zalantzak egon daitezke tartean, eta horietako asko ez daude CAFen kontrolpean. Beraz, baliteke emaitza errealak zeharo ezberdinak izatea adierazitakoekin edo aurreikuspen eta zenbatespen horietan era inplizituan jasotakoekin alderatuta.

Horrenbestez, ez dira inola ere interpretatu behar CAFen akzioak erosteko, saltzeko edo horietan parte hartzeko aholku edo gomendio gisa. Era berean, helburua ez da edozein produktu edo zerbitzu finantzario eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua sinatu den egunean eman dira, eta aurretiaz ohartarazi gabe egiaztatu, amaitu eta aldatu behar dira.

Lege aplikagarriak eskatzen duen neurrian izan ezik, CAFek ez du bere gain hartzen zenbatespen eta aurreikuspen horiek jendaurrean eguneratzeko edo aztertzeko betebeharra, bai informazio berria dagoenean, bai etorkizuneko beste ekitaldi batzuetan, edota beste egoera batzuetan.

Hirugarren batek dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hartutako edozein erabaki berariaz eta bakarrik haren erantzukizuna izango da. Hala, ez CAF, ez bere filialak, ez arduradunak ez dira izango sor daitezkeen kalteen erantzule. Halaber, ez dute inolako erantzukizunik hartuko dokumentu honen edo bere edukia erabilerarekin lotuta.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira, eta ezin izango da kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (guztiz edo zati batean), baldin eta CAFek aurretiaz idatziz adostasuna ematen ez badu.